



ALEGIAKO ORRIE

ALEGIAKO ORRIE - 2019ko apirila // Argitaratzailea: Alegiako Udala

Erredakzioa eta diseinua: Goiua // Inprimaketa: Garaiko

AURREKONTUAK

KREDITU ALDAKETA BIDEZKO PROIEKTUAK

Alegiako Udaleko zerbitzu ezberdinek dituzten premiei eta betebeharrei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratzen badira, zerbitzuen kalitatean eragin negatiboa izango luke eta hori gertatu ez dadin, Udalak hainbat kreditu aldaketa egin ditu,

jarrian aipatzen diren gastuei aurre egiteko.

Bideberrieta kalean, oinezkoen segurtasuna bermatzeko neurriak hartuko dira. Oinezkoen pasabideei altuera pixkabat emango zaie eta horrela ibilgailuek abiadura mantsotu beharko dute puntu horietatik pasatzerakoan.

Horrekin batera, San

Juan kalean, ermitaren inguruan, zoladura konpontzeko lanak egingo dira datozen asteetan, egun dagoena egoera txarrean dagoelako.

Carpinus Betulus espeziea babesteko neurriak ere hartuko ditu Udalak kreditu aldaketa honen bidez. Aipatu behar da, gastu horren %58ari diru-laguntza

bidez egingo zaiola aurre. Kirol instalakuntzetarako ere bideratuko da kreditu aldaketa bidez dirua.

Alde batetik, Inaxio Begiristan Kirol eta Kultur Etxeko gimnasioan hainbat aparailu berri ezarriko dira erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzeko helburuarekin eta Elorri pilota-

lekuan ere hainbat hobekuntza lan egingo dira, ezker hormaren egoera eta argiteria hobetzeko, batez ere.

Azkenik, hainbat hiri-altzariren egoera ere hobetuko da. Esate baterako, eskolaren eta Larraitz auzoaren arteko eremuan dauden eserleku zaharrak kendu eta berriak jarriko dira.



HIRIGINTZA

BECKER EREMUKO APARKALEKUA

Azken aldiaren burutuen beste lanetako bat Becker eremuko partzela baten egokitzapena izan da.

Udalaren eta Beckerren arteko hirigintza hitzarmen baten bidez, Becker enpresak, aipatutako lurzorua urbanizatu eta behin lanak gauzatu Udalaren esku jartzeko konpromisoa hartu zuen.

Gauzak horrela, lurzorua egoera hobetu

eta asfaltatze lanak egin dira, aparkaleku eremu berri bat egokituz.

Horrela, Becker lan-tegira iristen diren kamioiek geratzeko gutxienezko baldintzak betetzen dituen eremu bat izango dute eta bestelako ibilgailuek ere eremu publiko honetan aparkatzeko aukera izango dute.

Lanak amaitu bezain laster erabilgarri egongo da.



POLITIKA

ESPAINIAKO BANDERAREN INPOSAKETA

Duela aste batzutatik hona ikusi ahal izan den moduan, Espainiako

bandera bat jarri da udaletxeko balkoi nagusian. Espainiako gobernu

delegarizatik eta epaitegietatik iritsitako agindua izan da eta Udalari

agindua betetzea besterik ez zaio geratu, isun eta gaitasungabetzeekin mehatxu egiten zelako epaitegitik iritsitako ebazpen horretan.

Udalak argi utzi nahi du, orain arte egin izan duen moduan, bere borondatearen aurkako inposaketa izan dela bandera jarri beharrezko agindua.

Zentzu horretan, gure ez diren ikurragure erakundeetatik kanporatzeko lanean jarraitzeko konpromiso irmoa berretsi nahi da.

Banderaren neurria-

ren inguruan, banderak udaletxeko fatxadaren neurriekiko proportzionala izan behar duela zehazten du banderaren inguruko legediak. Hori izan da tamaina horretako bandera jartzearen arrazoia.

Jasandako inposaketari erantzun bat emateko asmoz, Udalak beste bost bandera jarri ditu udaletxeko balkoi nagusian.

Horien artean daude gure ikurrak diren Alegiako bandera, Gipuzkoakoa, Nafarroakoa eta Ikurriña.



Gainerako herritarrekiko begiruneagatik besterik ez bada ere, herrigunearan **TXAKURRAK LOTUTA DERRIGO-RREZKOA** delako gogorazten zaie txakurren jabeei.

Txakurren **kakak txakurren jabeek beraiek jaso behar dituzte**, eta **errefusa** jasotzen den edukiontzira bota.

Txakur arriskutsuei **bozala** jarri behar zaie. Elkarbizitzaren alde hartu beharreko neurriak dira.

La versión en castellano de Alegiako Orrie está **disponible en el Ayuntamiento** para todos aquellos ciudadanos que deseen consultarla.

Los vecinos que quieran **recibir en su domicilio la versión en**

castellano de Alegiako Orrie, tendrán la opción de **solicitarla en el Ayuntamiento** facilitando los siguientes datos: nombre, apellidos y dirección. El Ayuntamiento se encargará de mandar la revista a los domicilios.

INGURUMENA

LANGAURRE INGURUKO SEINALITIKA

Asko dira Aldaba Txiki mendian eta Langaurre inguruan oinez edo mendi bizikletan bueltaxkaren bat ematera

joaten diren alegiarrak edo kanpotarrak. Batetik bestera joateko bide ugari daude eremu horretan eta duela gutxi

arte oinezkoak soilik ibiltzen ziren bideetan, azken ureetan hazi egin da mendiko bizikleta erabiltzen dutenen


kopurua ere.

Bada, Alegiako Udalak aipatu eremuan dauden bideak seinalizatzeko egitasmoa garatuko du etorkizun laburrean. Bertan dauden bideen inguruko azterketa lan bat egin da azken hila-beteetan eta betidanik erabilgarri egon diren oinezko bideekin ez bezala, mendi bizikletarako egokitu diren hainbat jaitsiera eta bide berri jaso behar izan dira lanketa horretan.

Argazkian ikusten diren moduan, seinalitika ezberdina izango da

oinezkoentzat eta mendi bizikletako erabiltzaileentzat. Oinezkoentzat diren seinaleek kolore berdea izango dute eta distantzia eta berau osatzeko aurreikusten den denborari buruzko informazioa eskainiko dute, ibilbidearen ize-narekin batera.

Aldiz, mendi bizikletako erabiltzaileentzat izango den seinalitika gehiago izango da jaitsierak nondik nora doazen markatzeko. Kolore gorria izango dute, kolore txuriko letrak eta gezi beltzak.



ALDABA TXIKI MENDIKO ORDENANTZA

Duela hilabete batzuk, Alegiako Udalak Aldaba Txiki Onura Publikoko Mendiko ordenantza berria onartu zuen.

Ordenantza berriak eremu horren erabiltzaile izango diren elkarbizitza bermatzeko neurriak biltzen ditubere baitan.

Hala nola, oinezkoak, mendi bizikleta erabiltzaileak eta ehiztariak sartzen dira eremu

horretan ibiliko diren artean. Goiko albistean aipatzen den seinalitika ezartzea izan da Aldaba Txiki eta Langaurrealdean egin den lanetako bat.

Ordenantza horren edukien artean, eremu horretako ehiza jarduerari buruzko araudi bat dago. Azken asteetan, araudi horren inguruan polemikatxo bat sortu da Alegiako Udalaren

eta ehiztarien kolektiboaren artean.

Ordenantza onartu zenean, jendaurrean erakusgai egon zen legeak agintzen duen denbora epean.

Tarte horretan ez zen inolako ohartarazpenik jaso eta martxoan zehar, Gipuzkoako Ehiza Federazioak ohar bat kalera-tu zuen ordenantzak ehiza jarduera debekatzeko zuela salatuz eta

eremu horretan Udalak eskumenik ez zuela esanez.

Horren aurrean, Udalak ehiztarien kolektiboari bilera informatibo ireki baterako deialdia egin zion.

Martxoaren 26an ospatu zen bilera horretan, bi aldeek gaiaren inguruan zituzten iritziak agertu zituzten eta Aldaba Txiki Mendiko ordenantzak ehizaren

inguruan biltzen duen araudian aldaketa puntual batzuk egitea adostu zuten.

Apirilaren 1eko ezo-hiko osoko bilkuran onartu zuen Udalak aldaketa hori. Jarduera hori garatzeko gaitasun egokia dute pertsonei ahalbidetuko zaie ehiza jarduera eremu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak araututakoak eta ahalbidetutakoak.

HAINBAT OHAR

■ Korrika 21 apirilaren 13ko goizaldeko 5:20 inguruan iritsiko da Alegiara. Apirilaren 12an zahagiardoa, Bide Batez taldearekin erromeria eta DJ Baldaren saioa izango dira, Korrikaren iritsiera girotzeko.

■ Apirilaren 1etik aurrera, Lurraldebusetik TO01 lineak zerbitzu bat gutxiago izango du. Asteleheneetik ostiralera 7:40ean Abaltzisketatik abiatzen zen zerbitzua ezabatu egin da.

■ Aste santuko oporren ostean Udaiko Ekintzen berri zabalduko da. Udaleku irekiak eta itxiak, multikirola...

■ Udaberriko Kultur Egitarauaren ingurukoak ere maiatzaren hasieran zabalduko dira.

GIZARTE ZERBITZUAK

OPORRAK BAKEAN PROGRAMA

Oporrak Bakean programak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren hurrei udagure artean emateko aukera eskaintzen die. 10 eta 12 urte bitarteko haurrek izaten dute udan Euskal Herrira etorri eta beraien kanpamentuetan dituzten baldintza gogorrek pare bat hilabeterako atzean uzteko aukera.

Hemengo egonaldian, baldintza gogor horiek medio beraien kanpamentuetan jaso ezin dituzten hainbat arreta

zerbitzu jasotzeko aukera dute, hala nola, lehen mailako elikagai zein medikuntza beharrak, hezkuntza gabeziak eta beste hainbat.

Kanpainaren helburua, gutxienez iazko harrera familia kopurua berdintzea eta ahal den neurrian areagotzea da.

2018an 98 haur izan ziren Gipuzkoan eta deialdi honen bidez, udan etxean haur saharar bat hartu nahiko luketen familiak izena ematera animatu nahi dira.

Apirilaren 15a, astelehena, izango da horretarako azken eguna eta egitasmoan parte hartzeko interesa izango luketen familiek Alegiako Udaleko gizarte zerbitzuetara jo dezakete edo 943 65 47 68 telefono zenbakira deitu, gaiaren inguruko argibide gehiago jasotze aldera.

Horrekin batera, interneteko atari bat ere badago nahi duenaren eskura, egitasmoaren inguruko informazio gehiago kontsultatzeko: oporrbakean.eus.



GIZARTEA

'ALEGIA 1936-1945' LIBURUAREN AURKEZPENA

Iragan martxoaren 23an 'Alegia, Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan 1936-1945' liburuaren aurkezpen ekitaldia eta garai hartan errepresioa jasan zuten familiei egindako omenaldia egin zen.

Jendetza elkartu zen kultur etxeko areto nagusian eta ekitaldian Unai Iraola Alegiako alkateaz gain, liburu egiteko ardura izan duen Aranzadi Zientzia Elkarteko Juantxo Agirrek eta liburu idatzi duen Ione Zuloagak hartu zuten parte. Horrelako egitasmoak gauzatzearen beharra azpimarratu zuten, due-

la urte asko gertatutakoaren egia ezagutzea ahalbidetzen dutelako.

Liburu egin ahal izateko testigantzak eman dituzten familiei esker eman zitzaizkien eta ondoren banaka deitu zitzaaien lore sorta bana emateko. Guztiak elkartu zirenean agurra eskaini zitzaaien ekitaldian beste abesti batzuk eskaini zituen Txintzarri abesbatzak eta dantzariak lagunduta.

Liburuaren aurkezpen ekitaldiko gonbidapenarekin dohainik eskuratu daiteke liburu udaletxean eta txartelik ez duenak edo ale gehiago behar dituenak, 10 euro ordaindu beharko ditu liburu bakoitzeko.

